

«LIVING THEATRE»

ESKANDALO-TIK AZTERKETARA

III honen 9-an, ostegunez, Donoc-tia-ko «Victoria Eugenia» antzokian, sekulan gure bizitzan ahaztuko ez degun iru orduko teatro saio bat ikusi gendun. Sensibilidadearen neurriak eta ahalmenak ondo proban jarriak izan genitun, eta, egia diot, hura ikusi ondoren lehen bezain fresku kalera irten litekena, asto bat da, edo bestela ez daki gaur egunean munduan gertatzen diranen ezertxo ere.

Sartu, jaunak, sartu eta ikus teatroaren beste arpegia, antzizitatik gaurrera datorren ur izkutuen erreka pizkor eta inpernuzkoa. Lore zaharren usai ustela, eta eiztariak tiroz lurreratu duen usoaren tripa gorriak agirian jarriak.

Gizadiaren «anti-historia» bat eskribitzeko lana norbaitek artzen duen egunean —naiz eta historia bakoitzaren itzala egitazko anti-historia bat izan—, «Living theatre» taldearen testimonioa kontuan artu barko du.

«Antigona» hori, beste edozer titulo izan liteke edo beste edozein aitzakiren gain osatua egon liteke, baiñan ain zuzen tragedia klasikoak

oituraz eramaten ditun aunditasuna eta heroikotasuna referentzi bezela artuta, oraindik nabarmenago agertzen dira pertsonaje berri hauen degradazio eta mixeri guzia. Han, eszenario gañean ikusten deguna, benetako tragedia bat da, baiñan ez humanismo zarraren argi-itzaletan osatutako tragedia eder eta osoa, baizik ogeigarren mende illun eta nazkagarri hontan agertu ditek bezelako gertakari autsi eta zauritsuua, odolez eta terrorez dibujatua, bizirik bezain ongi illik egon ditzeken fantotxe batzuen joan etorrietan perfilatua.

Sinboloekin jokatzeari aspaldiko oikera da; baita era aspaldikoa ta gaurkoa realismo baten estiloon bizitzaren biroa eszenarioan agertu nai izatea; baiñan «Living Theatre» taldeak egiten duenak ez du izen berezirik, zeren ta esan liteke esperimento-ko aire batean sinbolo ikaragarriak errepresentatzen dituala oraindik realidade ikaragarriagoko baten oiartzun bezela.

Teatro klase hau atentado bat da; ikuslearen patxara eta kontzientzi onaren aurkako atentado bat. «Betikoa» izentatzen dan teatroan, hau da, burges teatroan, den-dena dago agerketa-ren asiera baiño lehendik estrukturatua eta orrela esperatua. Jakiñeko teknika batzuen bidez jakiniñeko idea batzuek edo «realidade»

batzuek erakusten zaizkigu, eta, geien gertatu litekena da iñoiz edo beiñ idea hoiek besteetan baiño diferenteagoak izatea, edo «realidade» hori oiturez kanporako perspektiba batetik begiratua egotea. Baiñan, nola nai ere, «betiko» teatroak badirudi orrela itz egiten digula: «zuen baimarekin, jaun-andreok, onelako edo orrelako gauz bat esplikatuko dizuet, arrigarria edo normala, trixtea edo alaia, bigabekeria edo jatorkeria. Baiñan, nola nai ere, ez geiegi ikaratu».

Nere ustez, bada, naiz eta «absurdoarena» deitzen dan teatroa ere, oso makala eta «errespetoduna» da «Living Theatre» taldeak egiten duenaren ondoan. Zeren ta absurdoaren teatroan, arrazoi desarrazoi biurtzen da, eta giza-situazioak limite bateraño eramaten dira; baiñan, alaz guztiz ere, espektadoreak bigun-bigun gelditzen da teatro klase hura begira, eta gertatu litezken reazioak oñarri geiago dute intelektual postura batean beste ezertan baiño. Hemen orde, guk ikusi dugun teatro berri hontan, espektadoreak lehenen zauritu bear dan elementoa, eta zauritu ez intelektual mailla batean, sentimentu, nerbio eta bioloji mailla batean baizik. Orrela, espektadoreak ta antzeslaria bat egiñik geratzen dira, kaos eta desorden berean bilduak, mixeri aundi baten

egiak bere irudia nagusitzen duan bitartean. Karraxiak eta kiñuak, kanta eta dantzak, oiu eta negarrak, itzak eta ixilluneak, hoiek denak dira pantomima ikaragarri honen elementoak.

Gizonen edertasuna eta loikeria bat egiten dira. Eta tramak ez du ia batere garrantzirik, bere gain osatzen den mundu konpletu eta estranoak baizik. Orrela, iru ordu luzez barru, dekoraziorik gabe, atsedetik gabe, «Antigona» izen klasikoak daraman tragedi-farsa-anikilamendu bat bizitzen degu gure izaki guzia tensioan jarriaz...

Kritiku batek esan du teatro hau «inmoral» eta «zikiña» eta «lizuna» dala. Aski da bai orrelako iritziak agertzea tutik ere ez dala ulertu adiratzeko. Teatro klase honerik buruz ezin litezke oituraz dauzkagun «moralidade» ta «edertasun» kriterioak erabilli. Beste mailla batean eta neurri batzuetan dago guk ikusi genuen guzia. Orrela konprenditzen ez duenak ez du ezertxo ere konprenditu.

Uste degu «Living Theatre» taldeak jarritako «Antigona» ikusi ondoren, gure arteko egille eta taldeak ez dutela orain arteraño teatro klase bat egiten jarraitzeko kupeirik izango. Orrela espero dezagun, guzien onerako.

XABIER LETE